

Amets Pajares Echeverria

B maila • 1 aipamena

Kaixo ni Amets Pajares naiz eta 14 urte ditut. Beasainen bizi naiz eta La Salle ikastetxean ikasten dut txiki-txikitatik. Nire zaletasuna gimnasia erritmikoa da.



AMETS GAZIA

Itsasoan dagoen marinel bat naiz
itsasoaren kresalak aurpegia laztantzen nau
haren usainak haurtzaroa ekartzen dit gogora
ametsez betetako neskabila hura

Itsasoan dagoen marinel bat naiz
portutik ikusten ditut malkoz betetako familiak
beraien bizitza hobetzeko esperantzarekin
haren maitea noiz bueltatuko zain

Itsasoan dagoen marinel bat naiz
goizean goiz ikusten dut ur urdina
eguzki gorria uretatik irtetean
egun berri bat hasten da

Itsasoan dagoen marinel bat naiz
itsasoa marinelen bizi eta hilobi
alargunak kaian daude beren malkoak isuriz
itxaropenak ere joan haiekin itsasoan barrena

Itsasoan dagoen marinel bat naiz
haizeak nire leihoa zabaldu duenean
bat-batean nire logelan esnatu naiz
ez naiz itsasontzi bateko marinela, bakarrik ni naiz